

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Onestea Iruraiz-Gaunako Udalak Arabako Lautadako Kuadrillari etxeko hondakinak eta antzekoak kudeatzeko eta garraiatzeko zerbitzuaren kudeaketa esleitzeko hitzarmena

Iruraiz-Gaunako Udalak, 2024ko azaroaren 5eko osoko bilkuran, administrazio arteko hitzarmen bat formalizatzea onetsi zuen Arabako Lautadako Kuadrillarekin, etxeko hondakinak eta antzekoen frakzioak biltzeko eta baimendutako tratamendu instalazioetara garraiatzeko zerbitzuaren kudeaketa kuadrillari esleitzeko.

Bestalde, Arabako Lautadako Kuadrillako presidenteak 2024ko abenduaren 23ko kuadrillako batzarraren erabaki bidez gaitutako administrazioen arteko hitzarmena sinatu zuen.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki horren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egun baliodunetik aurrera, Administrazio auzietarako jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8., 10. eta 46. artikuluek xedatutakoari jarraiki. Hala ere, hori baino lehenago, eta nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarki hau argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. «Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera; hala ere, egoki iritziz gero, beste edozein egintza edo errekurtsio abiarazi ahal izango du interesdunak bere eskubideak defendatzeko.»

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.b) artikulua xedatutakoaren arabera, ALHAOn argitaratzen da hitzarmen hori, eranskin gisa.

ERANSKINA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAREN ETA IRURAIZ-GAUNAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO HONDAKINAK ETA ANTZEKOAK JASOTZEKO ETA BAIMENDUTAKO TRATAMENDU INSTALAZIOETARA GARRAIATZEKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA ESLEITZEKO

Agurain, dokumentu hau sinatzen den egunean.

BILDU DIRA

Batetik Gustavo Fernández Villate, Arabako Lautadako Kuadrillako lehendakaria, hitzarmen hau sinatzeko gaitua, Kuadrillako Batzarraren 2024ko abenduaren 23ko erabaki bidez.

Bestetik, Iratxe Del Barco Murua, Iruraiz-Gaunako Udaleko alkatea eta hitzarmen hau sinatzeko gaitua, udalbatzaren 2024ko azaroaren 5eko erabaki bidez.

Alderdiek nahikoa eta beharrezko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri egintza hau egiteko, eta ondorioz, hau

ADIERAZTEN DUTE

Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.b) artikuluan xedatutakoarekin, aipatutako udala da hiri ingurumenaren arloko eskumenen titularra: «bereziki, parke eta lorategi publikoak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta hiriguneetako kutsadura akustikoaren, argi kutsaduraren eta kutsadura atmosferikoaren aurkako babesa».

Horiek horrela, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak 12.5.a artikuluan ezartzen duenez, tokiko erakundeei dagokie, «nahitaezko zerbitzu gisa, beren lurralde-eremu osoan, etxeko hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea, dagozkien ordenantzek ezartzen duten moduan, bat etorri lege honetan, autonomia-erkidegoek onartzen dituzten legeetan eta plangintza-tresnetan, hala badagokio, eta ekoizlearen erantzukizun hedatuaren arloko araudi sektorialean ezarritako esparru juridikoarekin. Horretarako, bilketa-sare nahikoa eduki beharko da. Sare horretan garbiguneak edo, bestela, toki entitateak hondakinak doan erretira ditzaten erabakitako bestelako entrega-puntuak egongo dira. Zerbitzu hori ematea udalei dagokie, eta modu independentean edo elkartuan eman ahal izango dute. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoaren arabera».

Kuadrillak etxeko hondakinak eta antzekoak jasotzeko eta baimendutako tratamendu instalazioetara garraiatzeko zerbitzuaren kontratazioa lizitatzen du. Zerbitzu hori, gaur egun, kuadrillak onartutako klausula administratiboan eta klausula teknikoan agirietan jasotzen diren baldintza eta ezaugarrien arabera ematen ari da, eta horiek erabili dira kontratua adjudikatzeko oinarri gisa.

Horregatik, beharrezkoa da toki erakundeen arteko lankidetzaren antolatzea eta aurreko puntuan aipatutako zerbitzuen kudeaketa kuadrillaren esku uzteko dokumentu bat formalizatzea, Aguraingo udalerriko bilketa pneumatikoaren bidez jasotako hondakinen garraioa barne.

Kuadrillei buruzko 1989ko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arabako Lautadako Kuadrilla Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Iruraitz-Gauna, Agurain, Donemiliaga eta Zalduondo udalerriek osatzen dute.

Gaur egungo ikuskeran, Arabako kuadrillak lurralde esparru egokiak dira udalerriak baino eremu zabalagoetan gauzatu behar diren politika orokorrak edo sektorialak ezartzeko. Horrek ez du esan nahi, ordea, udal eta toki erakundeen eskumen propioak murrizten direnik, zuzenean onura atera diezaiekutelako beren mugapean ekonomikoki bideraezinak izango liratekeen jardueri. Beraz, kuadrilla bide egokia da udal eskumeneko zenbait zerbitzu orokor batera gauzatzeko.

Udal sinatzaileak Arabako Lautadako Kuadrillaren esku utz dezake bere eskumeneko jarduera material edo teknikoak egitea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan ezarritakoan oinarrituta.

Arabako Lautadako Kuadrillak eskumena du udal sinatzaileek haren esku utzitako jarduera materialak edo teknikoak egiteko, Eskualdeei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 1. artikuluan arabera. Foru arau horren 28. artikulua honako hau ezartzen du: «Eskualdeei, parte hartze eta kontsultarako eta interes komuneko zerbitzuak sustatu eta kudeatzeko erakunde bezala, honako gaiak dagozkie: e) Eskualdearen interes orokorreko zerbitzuak sustatu eta kudeatzea. f) Udalen, Aldundiaren, eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen eskuordetzeaz eskumenak bereganatzea».

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baitu Espainiako ordenamendu juridikora, honako hau ezarri zuen 31.1 artikuluan: «Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetakoren batean, lankidetzaren emaitza kontratu izaerakotzat hartu gabe: b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzaren horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin».

Lankidetzak horrek administrazioen arteko lankidetzak, kooperazio eta laguntza printzipioen legezko oinarria du, eta, besteak beste, hauetan jasotzen dira horiek: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikuluan eta hurrengoetan, Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 107. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikuluan.

Hitzarmen hau formalizatuta geratzen da 40/2015 Legearen 11. artikuluan jasotakoaren besean eta hitzarmen honetan jasotzen diren zerbitzu prestazioak eratzen dituzten funtzioen kudeaketa esleipena babesten da. Aipatutako artikulua hiru garren apartatuak, esleipena nola formalizatu behar den zehazten du: «b) Kudeaketa-gomendioa administrazio desberdinetako organo eta zuzenbide publikoko entitateen artean egiten denean, dagokion hitzarmena izenpetuz formalizatuko da; ez da hitzarmenik behar, ordea, probintzietako diputazioek edo uharteetako kabildo edo kontseiluek autonomia-erkidegoetako zerbitzuen ohiko kudeaketaz arduratu behar dutenean; izan ere, kasu horretan, toki araubidearen legeriak arautuko baitu kudeaketa-gomendioa. Aipatutako hitzarmena Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidego aldizkari ofizialean edo probintziakoan argitaratuko da, gomendioa egiten duen organoa zein administrazioetako den kontuan hartuta».

Esleipena hitzarmena sinatuz formalizatu behar denean ere, esleipenak ez du bete behar 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan hitzarmenei buruz ezarritakoa. Hala xedatzen du 40/2015 Legearen 48.9 artikulua: «Kapitulu honetako arauak ez zaizkie aplikatuko kudeaketa-gomendioei eta administrazio prozedurak hitzarmen bidez amaitzeko akordioei».

Eskumen horretako jardura materialen, teknikoaren edo zerbitzuetakoaren prestazioa ezin dute udalek egin, arrazoi hauengatik:

- Esleitzen zaizkion eskumenak hitzarmen hau izenpetzen duten toki erakundeetan egikaritzea oso zaila da; izan ere, tamaina eta biztanleria txikikoak direnez, ez dute zerbitzua modu eraginkorrean emateko beharrezko azpiegiturarik».

- Toki erakunde horiek dituzten baliabide ekonomiko urriak optimizatu behar dira.

Beharrezkoa da hitzarmen honen xede diren zerbitzuak kuadrillako udalerrietan modu koordinatu eta adostuan eskaintzea, herritarrei zerbitzu osoa eta eraginkorra eskaintzeko.

Hitzarmen hau izenpetzean honako hauek lortu nahi dira: kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzea, baliabideen eta zerbitzu publikoen baterako erabilera ahalbidetzea, onura publikoko jarduerak egiten laguntzea eta aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko legeria betetzea.

KLAUSULAK

1. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA ETA LURRALDEKOA.

Hitzarmen honen menpe daude toki erakunde sinatzaileak, eta hitzarmen honen aplikazio eremua Arabako Lautadako Kuadrilla izango da.

2. XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da etxeko hondakinak eta antzekoak (ontziak, organikoa, tamaina handikoak eta errefusa) jasotzeko eta baimendutako tratamendu instalazioetara garraiatzeko zerbitzua emateko Iruraiz-Gaunako Udalak Arabako Lautadako Kuadrillaren alde egingo duen kudeaketa esleipenaren alderdi juridiko, administratibo eta ekonomikoetan indarrean egongo diren eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzten baldintzak jasotzea.

Esleipenarekin ez da aldatzen alor horretan udal esleitzaileari dagozkion eskumenen titulartasuna.

3. ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAREN BETEBEHARRAK.

Hitzarmen honen xedea gauzatzeko, Arabako Lautadako Kuadrillak konpromiso hauek hartzen ditu:

3.1. Arabako Lautadako Kuadrillari dagokio administrazio kontratazioa kudeatzea eta zerbitzua benetan emateko beharrezkoak diren gainerako kontuak kudeatzea.

3.2. Ontzi arinei dagokienez, kuadrillak kudeatuko ditu kudeaketa sistema integratuaren bidez bildutako materiala salduz eskuratutako zenbateko ekonomikoak. Horretarako, kuadrillak baimena izango du erakunde esleitzaillearen izenean eta haren ordezkartzan behar diren hitzarmenak eta dokumentuak sinatzeko. Bildutako ontzi arinak salduz kuadrillak eskuratzen duen zenbatekoa zerbitzuaren urteko likidaziotik deskontatuko da.

3.3. Hasiera batean, kuadrillak ordainduko ditu esleitutako zerbitzuei dagozkien hileko fakturak, bai eta hondakinak baimendutako instalazioetan uzteagatikotasak ere.

3.4. Ekitaldi bakoitza amaitu baino lehen, zerbitzua emateak hurrengo ekitaldian izango duen kostuaren aurreikuspena bidaliko dio kuadrillak esleipena egin duen erakundeari.

Baliteke aurreikuspen hori aldatzea, zerbitzuaren prezioa garestitzen edo merkatzen bada, zerbitzuaren kontratazioa arautzen duen administrazio klausulen agirian jasotako prezioak berrikusteko formulak aplikatzearen ondorioz, edo interes publikokoak diren eta aurreikusi ez diren inguruabarren ondorioz.

3.5. Ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilabeteetan, kuadrillak aurreko urteko zerbitzu kostuen likidazio xehatua igorriko du.

3.6. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak finantzatzen laguntzeko beharrezko dirulaguntza eskaerak izapidetuko dizkio kasuan kasuko erakunde publiko edo administrazioari.

3.7. Hitzarmen honen xedea betetzeko kontratazioak egingo ditu.

3.8. Egungo kontratuak amaitu aurretik eta behar adinako denborarekin, kuadrilla harremanetan jarriko da erakunde esleitzailleekin, erakundeek hitzarmenaren xede diren zerbitzuen kontratazio berria arautuko duten agirietan jasotzea beharrezkotzat jotzen dituzten ekarpen guztiak egin ditzaten.

3.9. Erakunde esleitzaillei jakinaraziko die, haiek adostasuna emate aldera, hitzarmen honen xede diren zerbitzuen prestazioaren konfigurazioan egin nahi den edozein aldaketa, besteak beste, balizko luzapenak, bertan behera uzteak, zerbitzuen erakunde edo pertsona esleipendunak uko egitea edo bestelako edozein inguruabar garrantzitsu.

3.10. Zerbitzuaren likidazio ekonomikorako, kuadrillak kostu errealean guztizkotik kenduko ditu esleitutako zerbitzuari lotuta lortutako diru sarrerak, eta udal esleitzaillearen ekarpena diferentziala izango da beti, gainfinantzaketarik edo finantzaketa gabeziarik izan ez dadin.

3.11. Kuadrillak hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat sortuko du. Kuadrillako lehendakariak aktiboki hartuko du parte batzorde horretan.

3.12. Hondakinak biltzeko zerbitzuaren kontratuaren kontrola eta jarraipena kuadrillako ingurumeneko teknikariek egingo dute, eta une oro emango diete eragindako udalei zerbitzua ematean gerta daitezkeen gorabeheren, ezustekoen edo aldaketen berri.

4. ERAKUNDE ESLEITZAILEAREN BETEBEHARRAK.

Hitzarmen honen xedea gauzatzeko, udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

4.1. Erakunde esleitzailleak konpromisoa hartzen du bere zerbitzuei egotz dakizkiekeen kostu guztiak ordaintzeko. Zerbitzuak, oro har, bi ordainketatan ordainduko dira: lehenengo ordainketa, ehuneko 60koa, hasierako ekarpen gisa, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua onartu edo luzatu ondoren, eta bigarren ordainketa, azken likidazioan.

4.2. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak kontratatzea arautuko duten baldintza agiriekin ados egotea edo egokitzat jotako alegazio edo ekarpenak egitea, zerbitzuak lizitatzeko prozedura izapidetu aurretik.

4.3. Kuadrillari zerbitzu beraren esleipenak egin dizkieten beste udal batzuekin eta Arabako Lautadako Kuadrillarekin koordinatzea, herritarrei zerbitzu eraginkorragoa eta osoagoa eskaintzeko.

4.4. Ordezkarri bat izendatzea, hitzarmen honen jarraipen batzordean aktiboki parte hartu dezan.

5. ZERBITZUAREN EDUKIA ETA ZERBITZUA EMATEKO MODUA.

Kuadrillak zerbitzua baldintza administratiboen agirian eta lizitazioa arautzen duten klausula teknikoen agirian ezarritakoaren arabera emango du, eta Arabako Lautadako Kuadrillak zein esleipena egin duen erakundeak berariaz adierazten dute horren guztiaren berri dutela eta onartzen dutela.

Kontuan hartuta hondakinei eta ingurumenari buruzko araudia eta, batez ere, birziklatzeari eta hondakin motaren arabera gaikako bilketak izan dezakeen bilakaerari buruzko araudia, Arabako Lautadako Kuadrillak eskubidea izango du esleipenaren xede diren zerbitzuak egokitzeko edo aldatzeko, aparteko edo gaikako bilketa berriak sartzeko.

Arrazoi horregatik edo beste batengatik beharrezkotzat jotzen bada zerbitzua emateko moduan edo ezaugarrietan aldaketaren bat egitea, kuadrillak horren berri emango dio esleipena egin duen erakundeari, egokitzat jotzen dituen ekarpenak edo iruzkinak egin ditzan.

6. IRAUPENA.

Kudeaketa esleipenaren iraupena mugagabea izatea adosten da, eta, nolana ere, esleipenaren indarraldia adjudikatutako kontratuen iraupen aldiekin bat datorren gutxieneko aldi baterako finkatzen da.

7. JARRAIPEN BATZORDEA.

Hitzarmenaren egikaritzearen kontrola eta jarraipena egiteko batzorde bat sortu da. Hartan, Arabako Lautadako Kuadrillako ordezkari bat izango da (kuadrillako lehendakaria edo haren ordezkaria) eta erakunde esleitzaileri bakoitzeko ordezkari bat (alkatea edo lehendakaria edo haren ordezkaria). Idazkari batek lagunduko dio batzordeari.

Hortaz, ordezkari hauek osatuko dute jarraipen batzordea:

- Kuadrillako lehendakaria.
- Udaletako alkateak.
- Idazkaria.

Organo horrek eginkizun hauek izango ditu:

- Esleitutako zerbitzuaren hobekuntzak koordinatzea eta proposatzea.
- Zerbitzuen prestazioan sor litezkeen eztabaidak ebaztea.
- Hitzarmena aplikatzean sor litezkeen interpretazio zalantzak argitzea.
- Hitzarmenaren ez-betetzeak identifikatzea eta hitzarmena urratu duen alderdiari eskatzea hilabeteko epean bete ez dituen betebeharrak eta konpromisoak betetzeko.
- Agiriak balidatzea.
- Parte hartzen duten udalen artean esleitutako zerbitzuen kostua banatzeko proposatzen diren irizpide teknikoak balidatzea.

Batzordeak urtean behin egingo du ohiko bilera, eta apartekoa, berriz, behar den guztietan, alderdietako edozeinek eskatuta, hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten jarduketan koordinazioa eztabaidatzeko eta adosteko.

Kuadrillaren bulegoetan egingo dira bilerak, eta kuadrillako lehendakariak edo hark eskuordetutako batzarkideak egingo du haietarako deia.

Batzordea balio osoz eratzeko quoruma batzordea osatzen duten erakunde esleitzailen eta Arabako Lautadako Kuadrillaren ordezkari guztien gehiengo soila izango da. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

8. AZKENTZEA.

Esleipen hau azkendu egingo da xedea betetzen ez bada edo suntsiarazteko arrazoiren bat bada.

Hauak dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- Alderdi sinatzaileen adostasuna.
- Hitzarmen honen jarduketak egitea ezinezko edo alferrikako egiten duten arrazoiak.
- Sinatzaileetako batek ez betetzea bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak.
- Ebazpen judizial batek hitzarmena baliogabea dela adieraztea.
- Ordenamendu juridikoan jasotako beste edozein arrazoi.
- Esleipena egin duen udalerriaren alde bakarreko erabakia.

Esleipena egin duen erakundeak kudeaketa esleipen hau 6. klausulan jasotako gutxieneko iraupen data baino lehen amaitzea erabakitzen badu, esleipena amaitutzat ematen duen erakundeak bere gain hartu beharko ditu esleitutako zerbitzuaren baldintzak aldatzearen ondoriozko kostu ekonomikoak edota kalte ordainak.

9. EZ-BETETZEEN ARAUBIDEA.

Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, jarraipen batzordeak errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio betebeharra bete ez duen alderdiari, hilabeteko epean bete ditzan betegabetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimenduan adierazitako epea amaitzean ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, jarraipen batzordeak alderdi horri jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoi dagoela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Arrazoi horregatik hitzarmena suntsitzen denean, zerbitzuak eta zerbitzu horiei atxikitako langileak berriz ere konfiguratzearan sortzen diren kalte ordainak indemnizatu beharko dira.

10. HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA ESKUDUNA DEN JURISDIKZIOA.

Hitzarmen honen izaera Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan jasotakoen izaera du, eta salbuetsita dago Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legetik, 6.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (lege horren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Hitzarmena arau bereziek arautzen dute eta adierazitako legearen printzipioak aplikatuko dira sor litezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Hitzarmen hau interpretatzeari, aldatzeari, ebazteari eta aplikatzearen ondorioei buruz sortzen diren eztabaidak aho batez ebatzi beharko dira hitzarmen honetan aipatutako jarraipen batzordean. Horretarako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen printzipioak aplikatu beharko dira eta zehazki 4. artikuluan xedatutakoa, indarraldian sor litezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Bestalde, auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira, bat etorriz jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin.

11. PUBLIZITATEA.

Kudeaketa esleipeneko hitzarmen hau argitaratu egingo da, bat etorritik Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3 b) artikuluan xedatutakoarekin.

12. INDARREAN JARTZEA.

Hitzarmen hau 2025. urtean Arabako Lautadako Kuadrillako hondakinak biltzeko eta garraiatzeko kontratua sinatzen den egunean jarriko da indarrean.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek elektronikoki sinatzen dute esleipen hau, eta goiburuan ageri den datan izenpetutzat jotzen da.

Azilu, 2025eko ekainaren 20a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA